

CHICAGO

AITZIBER ETXEBERRIA



narratiba
erein

CHICAGO

n a r r a t i b a • 168

ere in

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespeneko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2026eko maiatzean

Azalaren diseinua eta maketazioa:

Iván Landa | Erein

© Aitziber Etxeberria

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-117-6

L. G.: D 416-2026

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu

Zubillaga industrialdea 9

20560 Oñati

T 943 78 33 09

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

CHICAGO

AITZIBER ETXEBERRIA



Amari.

Amei.

Etorkizunaren alde borrokatzen direnei.

Etxeko gazteei: Aritz, Galilea, Libe, Malen, Elaia,

Maddi, Jakes, Uxue, Markel.

Mundu hobeko baten ametsa bizi dezazuen.

OHARRA

2009. urtean gaude; Ingrid, Elisa eta Joxeren alaba, Donostian bizi da.

Irene, ahizpa nagusia, eta Ingrid haurrak zirela hil zen Elisa eta aitarekin bizi izan ziren haurtzaro eta gaztaroan. Aukera izan zuenean, motxila hartu eta Indiarra joan zen Irene eta hamar urte baino gehiago da ahizparen berririk ez duela.

Joxe gaixotzean Ingriden zainduko du. Haren heriotzak bakarrik eta triste utziko du. Notarioaren bisita tramite hutsa izango dela uste badu ere, amaren iragana aztertzea eramango duen Olivetti idazmakina baten argazki zahar batek eta esanahirik gabeko aipamen batek hankaz gora jarriko dute bere bizi.

Dusty tatuatzailearen laguntzarekin gurasoen inguruko informazioa biltzen saiatuko da. Lortzen duen pista bakoi-tzak enigma berri baten aurrean jarriko du, ordea. Kikildu gabe, Ingrid eta Dusty, amaieraraino eramaten saiatuko dira ikerketa. Bilaketak argi utziko die Elisari buruz egia osoa jakin nahi badute Chicagora joan beharko dutela.

Illinois, 1975

Ez daki zenbat milia eman dituen Illinoisko zelai berde amaiezin haiek ziztu bizian zeharkatuz. Bere baitan murgildurik gidatu du; inguruari sorgor, bolanteari behar baino indar handiagoz helduz, eri-koskorrak zuri, lepondoa zurrun, irratiko musika topera. Eagles, Bee Gees, Queen, Aerosmith... antsietatez irensten ari den errepideko marraren abiadura berean desagertu dira. Etengabeko jirabiran dabilzkio pentsamenduak, aurrean harrapatzen duten guztia birrinduz, tornadoen antzera. Benetako mustang, zaldi basati bilakatu eta belaze zabal haietan ihesbideren bat topatu nahian, bere buruaren aurka lehia bizian aritu da Elisa.

Wuakegana iristear dagoela adierazten duen kartela ikusi duenean oina azeleragailutik altxatu eta eskuak askatu ditu bolantetik. Hiritik bost miliatara dago. Lake konterriko eta Michigan lakuko publizitatez apainduriko kartelak azaldu dira. Abiadura moteldu eta lasaitzen saiatu da. Ez zaio komeni inoren arreta bereganatzerik. Pasatu berria duen gasolindegia atzean, bila zebilena aurkitu du: bidebatterreko kafetegi bat. Keinukariak jarri, bidea gurutzatu eta errepidea eskuinean utziz, *Great Lake* izeneko kafetegi kalamasra hartara sartu da.

Atea bultzatu eta lehen pausoak barrura eman bezain pronto, toki aproposa aurkitu duela jakin du; bata bestea-
ren atzean ilara zuzen bat osatuz kokaturik dauden bospasei
mahai, erdi hutsik. Lau lagun erraz esertzeko pentsaturik
badaude ere, bikote gazte bat dago lehen mahaian eta per-
sona bakarra gainerakoetan. Bere etorrerak ez du jakin-
min handirik sortu; arropa arruntez jantziriko eta nekea
edo haserrea aurpegian itsatsirik daraman berrogei urtetik
gorako emakume argal bat baino ez da.

Poltsa ezker sorbaldan finkatu eta pauso lasaiez, mahai
eta barra luzearen arteko pasilloa jarraituz, kafetegia alderik
alde zeharkatu du. Azken mahaia, aurrekoa bezala, hutsik
dago. Eseri orduko, bera baino nekatuagoa dirudien zerbi-
tzaria gerturatu zaio ohar koaderno eta arkatza eskuan. Be-
gizulo nabarmenak eta etengabe murtxikatzen duen txikle
motroiloa du ahoan. Gogaikarria iruditu zaio Elisari eta atze-
rako mugimendu txiki erreflexu bat egin du. Elisaren nazka
keinuz oharturik ere, berearekin jarraitu du zerbitzariak.

—Zer izango da? —galdetu du ahots lodi indartsuz.

—Kafea —erantzun dio Elisak zalu.

Zerbitzaria zain geratu da, kafea besterik ez nahi izatea
ezinezkoa izango balitz bezala. Elisari zuzen begiratu eta hau
nahi baino gehiago aztoratu da. Ezin du inoren arreta bere-
ganatu, ez orain ez hemen. Ingurura begiratu eta horrelako
egoera batean, emakume amerikar batek zer eskatuko lukeen
pentsatu du. Zerbitzariak, bezeroaren zalantza ikusirik, bere
profesionaltasuna argi eta garbi erakustea erabaki du.

—Donutsak, muffinak, pan cakeak, opiltxoak, saltxi-
txak, arrautzak, hirugiharra eta hanburgesak ditugu kafeari
laguntzeko, andrea.

—Ongi da, donutsa hartuko dut orduan.

—Bat? —Zerbitzariak goitik behera begiratu dio Elisari, bere pisuaren eta jan ditzakeen donuts kopuruaren arteko erlazio zehatza kalkulatu nahian.

—Bai, mesedez, eta kafea edalontzi handian izan dadila.

—Ez dugu txikirik, andrea.

Buelta eman eta mostradorearen izkinara joan da pauso nekatuz. Azpila hartu, platertxo bat hautatu eta beirazko estalki handi baten azpitik atera duen donuts bat eta katilu handi bat jarri ditu. Ondoren, azpila ezker besoan bermatu eta eskuinarekin kafe beroz goraino beterik dagoen pitxarri heldu eta Elisarengana gerturatu da. Murtxikatzeari utzi gabe, katilua kafez goraino bete eta mahai gainean utzi du donutsa. Berriro ere barra aldera inguratu da. Elisak mahaiaren erdian kokaturik dagoen otartxo batetik azukre eta esne hauts zorrotxoak hartu, bere gustura nahastu eta trago luze bat eman dio.

Sudurra katilutik altxatu duenean, zerbitzaria begira due-la konturatu da. Ezustean harrapaturik, eta gizalegez jokatu nahirik, irribarre bat irudikatu nahi duen imintzio lotsati bat egin du eta zerbitzariak ere, keinu lagunkoi batez erantzun dio.

Kontrakoa espero bazuen ere, kafea uste baino hobea dago eta donutsari emandako lehen hozkadak ere, sentsazio onarekin utzi du. Sartu denetik lehen aldiz, gustura sentitu da eta lasaitasun momentu hau borobiltzeko, tabakoa atera eta zigarro bat piztu du. Leihotik begira jarri da.

Ez dago ezer ikusgarririk beiraz bestalde: kafetegian dauden bezero apurren autoak, bonbilla gehienak erreta dituen kafetegiaren kartel zahar bat zurtoin are zaharrago batean zintzilikaturik eta errepidea. Arrunta, monotonoa,

dekadentea kasik. Elisarentzat hipnotikoa bilakatu da, ordea. Bata bestearen atzetik piztu eta kontsumitu ditu, ia hartzak erretzeraino, hiruzpalau zigarro. Denbora luzez egon da beirari itsatsirik, tabakoaren ke artean erdi ezkutaturik, berak baino ikusten ez duen errealitate bati begira. Kartzela bilakatu zaion etxe isolatu hartatik atera eta haize freskoa arnasteko beharra zuen. Oso gogorra egin zaio etxalde hartan bakarrik egotea. Asteburu bat baino izan ez bada ere, eternitate bat pasatu dela iruditu zaio.

Ordu gehiegi bakarrik egoteko. Ordu gehiegi bere buruari behin eta berriro galdetzeko zertan ari den, zergatik onartu duen lan, edo hobeto esan, misio hau, zergatik utzi duen familia atzean, Europan, egin beharreko sakrifizioak benetan merezi duen, ez ote den bere bizitzako akatsik handiena egiten ari, hartu duen bidearen bukaeraraino iristeko gai izango ote den, honi guztiari ezetz esan balio bere buruari inoiz barkatuko ote liokeen jakiteko. Bi egunez burua etengabe lanean izan du. Geratzeko momentua iritsi da. Kolapsoa ez dabil urruti, sartu den zirkuitutik atera eta geldialdi bat egin behar du. Arrapaladan doan zaldi zoroa bat-batean geratzea arriskutsua da, ordea. Horregatik egin du ihes, horregatik babestu da kafetegian, tabakoan, errepi-dean, egunerokotasunaren errutinan...

—Beste bat, andrea?

Begiak kizkurtu eta esfortzu handi bat egin behar izan du aurrean duen irudia enfokatzeko. Nahi baino denbora gehiago behar izan du, lehengo zerbitzari nekatua, kafeontzia eskuan, bere aurrean duela ohartzeko.

—Barkatu? —Erantzuna, emakume ahots leunetik baino, belearen karrankatik gertuago egon da. Zerbitzariak ez

du zirkinik ere egin eta patxadaz errepikatu du bere galde-
ra—. Bai, mesedez.

Zerbitzariak kafez goraino bete dion bigarren katilua esku artean hartu eta zurrupada sakon batez erdiraino hustu du. Katilua platertxoan utzi du, beharrezkoa baino zarrata handiagoa ateraz. Bere helburua lortu du: ia barraraino iritsi den zerbitzariaren arreta bereganatzea. Pauso motelez gerturatu zaio. Begizuloak izan arren, aurpegi polita du, ez du makillatzeko premia handirik izango gizonen begiradak eta lausenguak eskuratzeko. Bera hain zuria eta argala izanik, inbidia pixka bat ere sentitu du emakume beltzaran handi haren pauso motela behatzean. Mahaira iristear dela, mantalaren ezker aldean itsatsirik duen xafla gastatuan erreparatu du Elisak: *Harriet* irakurri du zalu.

—Bai?

—Arrautza pare bat eta hirugiharra ere hartuko dut.

Zerbitzariaren aurpegian barru-barrutik atera zaion irribarre bat azaleratu da.

—Berehala.

Aurrean duen erronkari aurre egiteko, azken egunetan baino hobekiago jan beharko du. Gogo txarrez, Margaretek ekarri dion kontratua atera du poltsatik. Ez da oso idatzi luzea. Hala ere, bere bizitza hankaz gora jarriko du.

Arnasa sakon hartu eta oso-osorik irakurri du berriz ere. Energia Departamentuan lan egiteko kontratu bat da. Sei hilabeterako lan eskaintza, kimikari nuklear lan egiteko aukera. Edozein zientzialariarentzako aukera paregabea. Elisak begiak itxi ditu. Kontratu hura sinatuz gero, ez da udan Europa itzuliko. Senarrak, Joxek, ez du begi onez ikusiko, energia nuklearrarekin zerikusia duen edozerk izua sorrarazten

baitio. Joliot-Curietarren heriotza goiztiarra beraien ikerketen ondorio dela gogoraraziko dio, bi alaba dituztela argudiatuko du, ez duela alargun gazte izan nahi...

Arrazoi duela esan nahiko lioke bere senarrari, dena ahaztu, eta, agindu bezala, bere ondora itzuliko dela, ama eta emazte eredugarria izaten saiatuko dela, bere ametsak albo batera utziko dituela, une egokia iritsi arte zain egongo dela... badaki, ordea, ez duela horrelakorik egingo.

Margaret eta bere kideak ez ditu oso gogoko, baina, haiek bezala, etorkizun hobego baten alde borrokatzeko garaia dela pentsatzen du Elisak. Ez da beste alde batera begiratzeko unea. Beldurrak albo batera utzi eta gizartearen, munduaren etorkizunaren alde zerbait egiteko garaia da. Bera zerbait egiteko gai da. Gehiago pentsatu gabe, kontratua sinatu eta poltsan sartu du. Iritsi denetik lehen aldiz, musikan erreparatu du eta bulkada bat sentitu du: Ella Fitzgerald da ahots sarkorrez kantari ari dena.

—Boteretsua, ezta? —Harrietek keinu konplize bat egin dio platera bere aurrean utzi bitartean.

—Bai, zoragarria.

—On egin!

Elisak begiak itxi eta Ellaren ahots boteretsutik Maltideren irribarrera egin du salto. Hutsune eta bakardade izugarria sentitu du Donostiako bere lagun minarengan pentsatzean. Faltan sentitzen du, izugarri gainera. Arnasa sakon hartu eta Ellaren ahotsean murgildu da berriro ere, errealitateari eta penei itzuri eginez.

Donostia, 2009

Sei hilabete luze pasatu dira. Bisitarik gabe. Poztasunik gabe. Hura besarkatu edo haren ahotsaren laztanaz gozatze-ko aukerarik gabe.

Ez dut lorerik ekarri, ezta bere hilobiaren aurrean aita-gurerik errezatu ere, nahiz eta berak gustuko izango zukeen. Oso elizkoia ez zen arren, bazituen oso bereak zituen erritu txikiak, eta horietako bat zen, hilerrira norbait bisitatzera joatean, aitagure bat errezatzea. Oroitarriaren aurrean jarri eta hantxe egon naiz, mutu, egoskor, haur txiki bat bezain zaugarri. Hilarrian finkatu dut begirada oinarri irmo bat edukitzeko asmoz.

Aitaren zerraldoa gordetzen duen horma zabala zuhaitz baten gerizpean dago, zeinak aran txikien antzeko fruitu likatsuak jaregiten dituen. Iritsi naizenean, emakume bat ikusi dut, harantzago, xaboiz beteriko espraia eta trapu umel bat eskuan, bere senitartekoaren oroimen harria indarrez igurzten. Momentuz, ez dut horretarako adorerik. Aitak barre egingo luke ni horrelako egoera batean ikusita. Nire gela txukun mantentzeko gai ez eta bere izena baino ezer interesgarririk ez duen harri hura garbitzen zertan nabilen galdetuko lidake irribarre ironiko bat ahoan.

Malko batzuk ere isuri ditut pentsamendu hauetan murgildurik. Oraindik ezin dut sinetsi ez dudala inoiz gehiago ikusiko.

—Barkatu, baina, zeurea dela uste dut.

—Nola? —Nire baitatik ateratzea lortu dudanean, lehen-go emakumea aldamenean dudala konturatu eta pauso bat atzera eman dut.

—Mugikor bat entzuten da eta zure poltsatik dator soinua —esan dit espraia askatu gabe, beste eskuaz nire bizkar-zorroa seinalatuz.

Bizpahiru minutu behar izan dut esaten didana prozesatzeko. Halako batean, motxila hartu eta mugikorra atera dut. Andreak begirada arraro batez agurtu nau, inozoa naizen ala oso atsekabeturik nagoen erabaki ezin izango balu bezala.

Mugikorra hartu dudanerako, deia amaitu egin da. Dei galduaren ikonoa begiratu gabe, erantzuteko aukerari eman diot.

—Non zaude?

—Hilerrian.

—Zertan?

—Zuri zer iruditzen?

—Zerbait gertatu da?

—Ez, Dusty, lasai, aita bistatzera etorri naiz.

—A.

Isilune luze bat etorri da ondoren.

—Zerbeza bat hartzeko geratu nahi zenuen jakiteko deitu dizut —esan du azkenean Dustyk zalantzakor.

—Bale.

—Bai?

—Baiiii.

—Ongi da. Martinsen?

—Bai, ordubete barru.

Erantzuteko astirik eman gabe, eskegi eta kanpoalderako bidea hartu dut.

* * *

—Noiz arte jarraitu behar duzu?

—Nekagarria zara benetan, Ingrid.

—Ez, benetan ari naiz.

—Baita ni ere. —Dustyk zuzen begiratu dit eta ondoren trago luze bat eman dio aurrean duen garagardoari.

—Mila buelta eman ditugu gurasoen etxera, bururatu zaizkigun pista guztiak aztertu ditugu eta esku hutsik amaitu dugu beti.

—Ez dut amore eman nahi, egoskorra naiz.

—Nekaturik nago galtzaile bat izateaz.

—Zu beti bezain baikor. Utz nazazu laguntzen.

—Zer egin nahi duzu?

—Zure gurasoen etxera joan eta bulegoan dauden paperak berriz aztertu nahi ditut, besterik ez.

Hasperen luze bat egin dut. Eskuak bularrean gurutzaturik eta hankak mahai azpian luze-luze ditu Dustyk. Barra gaineko apalean txukun-txukun ordenaturik dauden botila guztien izenak banaka-banaka irakurtzen ari da. Ez dit engainatzen, lasai plantak egiten ari bada ere, egoerak erabat amorrarazten du.

—Zertarako? Denbora galtze bat besterik ez da. Hiruzpalau aldiz begiratu ditugu ditzosozko paperak eta ez dugu ezer apartekorik topatu.

—Agian ez dugu ongi begiratu.

—Zer uste duzu, isilpeko kodigoren bat izango dutela? Izpi ultravioletazko lanpara batekin argituz gero, mezu sekretu bat azalduko dela edo antzerako txorakeriaren bat?

—Nik ez dut horrelakorik esan!

—Esan ez baina pentsatu bai. —Eskua altxatu eta erakuslea bere aurrean dantzatu dut. Erruduna da.

—Ezin ditut zure gurasoak burutik kendu. Ikasiak ziren biak, unibertsitarioak, ez zuten informazio garrantzitsua edonoren esku babesik gabe utziko. Ziur nago orain arte ikusi ez dugun zerbait egon behar duela. Horixe da topatu nahi dudana.

—Hain egoskorra zara gauza guztiekin?

—Ez, benetan axola didatenekin baino ez.

Ahoa zabaldu dut erantzun ironiko bat emateko asmoz, Dustyren begirasunak erdi zabalduzik dudana ahoa itxiarazi dit, ordea. Ez nago gure harremanari buruzko hizketaldi baterako prest, ezta Dusty merezi baino gehiago mintzeko ere. Bakea behar dut.

—Kaka zaharra, Dusty! Ongi da, azken aukera bat emango dizut. —Salto batez eserlekutik altxatu eta hustu berri dudana edalontzia ezker eskuan hartu dut—. Beste bat?

—Noski, tori. —Pitxar hutsa luzatu dit—. Eta patata tortilla pintxo bat ere eskertuko nuke. Apur bat epeltzeko eskatu Deliari, badakizu-eta ez zaidala hotza gustatzen.

—Zerbait gehiago? —galdetu diot zakar samar.

—Irribarre bat ere ongi etorria izango litzateke.

—Bufff.

Dustyren mozolo aurpegia ikusteko batere gogorik ez dudanez, damutu baino lehen barrara zuzendu naiz. Nire onetik ateratzeko gaitasun berezia du.

—Bi kaña eta patata tortilla pintxo bat, mesedez, Delia.

—Eramango dizkizuet, eseri lasai.

—Har dezaket?

Deliak kañeroaren gainetik begirada azkar bat eman eta baiezkoa luzatu dit.

—Egunak daramatza hemen, ez dut uste inor bila etorriko denik.

Aldizkaria hartu eta mahaira itzuli naiz.

—Hain aspergarria al naiz? –galdetu dit Dusty aldizkariari begirada jeloskor bat eskainiz.

—Batzuetan haur txiki bat dirudizu –erantzun diot aurpegira begiratu ere egin gabe. Aldizkaria hartu eta irakurtzen jarri naiz.

—Hara, barkatu zure heldutasun mailaren pare ez banago.

—Tira, Dusty, ez jarraitu bide horretatik, mesedez, begira. –Aldizkaria altxatu eta azala erakutsi diot. Ez dirudi aparteko gauzarik ikusi duenik. Oraindik ere betozko ilunarekin jarraitzen du—. Hemen! –Erakuslea jarri dut albiste txiki baten gainean–: «Chicago haizearen hiria».

—A! Hori al da? Esan ba!

Begiak itxi eta buruaz neke keinu esanguratsu bat egin dut. Deliaeren etorrerak purrustada gordin bat isilarazi du.

—Zer? Bidaiaeren bat prestatzen zabilzate? A ze inbidia!

Erantzunik espero gabe azpila hustu eta barrara itzuli da Delia gure kopeta beltzak ikusi orduko. Bidaia aldizkaria mahaiaren erdialdera bota eta zurrupada ozen bat eman

diot kañari. Dustyk patata tortilla pintxoa ia mokadu batez desagerrarazi du. Mokoka hastear dauden oilar pareta gara.

—Eskatu duzu Estatu Batuetara sartzeko bisa? —galdetu dit lehor Dustyk.

—Datorren asterako hartu dut txanda —erantzun diot are lehorrago.

Dustyk nire begirada ekidin eta aldizkaria hartu eta irakurtzen jarri da, orain, ni naiz, itxura denez, lekuz kanpo dagoena. Pitxarra mahai gainean utzi eta Dustyri zuzen begira geratu naiz, beheko ezpaina behin eta berriz laztantzen dudana bitartean. Txikia nintzenetik, zalantzan nagoenean egiten dudana keinua da. Ez dut batere argi Chicagora joatearena!

—Oraindik ere bidaiarekin bueltaka zabilta?

—Bai, bueltaka nabil, eta mesedez, ez inozo aurpegi horrekin niri begiratu.

—Eta zer nahi duzu, txaloka hastea?

—Ez, ez dut zure onespenez ez baimenik behar, Dusty. Zuretzat oso erraza da enbaxadara joan eta turista pase bat eskatzea.

—Baita zuretzat ere, Ingrid.

—Ez, ez da horrela, ondotoxo dakizu ezetz. Ahizparen berri urte luzez izan ez genuenez aitak eta biok desagerpen salaketa bat jarri genuen Ertzaintzan. Horrek bilaketa internazional bat aktibatu zuen eta gure datuak Interpoleko datu basean gordetarik dituzte. Ziur nago Estatu Batuetarako bisa eskatzen dudanean, nire fitxan abisuren edo alarmaren bat azalduko dela, eta ez naiz askorik fio muga-funtzionario amerikarrek egin dezaketenez.

—Tira, Ingrid, film gehiegi ikusi dituzula uste dut.

—Oso erraza da hesiaren beste aldetik aholkuak ematea. —Besoak gurutzatu ditut nire ezinegona nabarmenduz—. Eta zertarako? Ziurrenik ere esku hutsik eta joan baino okerrago bueltatzeko. Merezi al du hainbeste esfortzuz?

—Ezin dut sinetsi, Ingrid. Zalantza horiek behintzat gainditu zenituelakoan nengoen.

—Zer da sinetsi ezin duzuna? —Erasoa bat-batean hasi dut: kokoteraino nago nire erabaki guztiak justifikatu beharraz—. Zertara goaz Chicagora, Dusty? Esan egia, nire amaren aztarna bila ala zure gaztaroko fantasia abenturazaleak betetzera?

Dustyk egin du eztanda oraingoan, paparretik hasi eta kopetaraino gorritu da bat-batean.

—Zein da hemen umekeriatan dabilena? Noiz konturatu behar duzu lagundu baino ez dizudala egin nahi? Mila bider hitz egin dugu honetaz, Ingrid, mila bider... Chicagora joatearen helburu bakarra zure amaren aztarnaren bat topatzea da. Zuk ere badakizu, ondotxo jakin ere, hemendik nekez topatuko dugula ezer. Zeri diozu hainbeste beldur?

Ez dut berehalakoan erantzun, baina, behin hasi naizeanean, kontrolaezina izan da nire jarioa.

—Bakarrik sentitzearen beldur naiz, Dusty. Inozo bat bezala sentitzearen beldur, esku hutsik bueltatzearen beldur, joan baino okerrago bueltatzearen beldur, traizionaturik sentitzearen beldur, zerbait topatu eta horri aurre egiteko gai ez izatearen beldur, neure buruaren beldur... Jarraitzea nahi duzu? —Malkoak sentitu ditut masailetan behera bata bestearen atzetik korrika bizian. Amorraturik, aulkiaren bizkarraldean ditudan poltsa eta txaketa hartu eta ihes egin dut Martinsetik.

Dustyk ez zuen horrelakorik merezi. Ezta neuk ere. Denbora behar dut kontu honi guztiari aurre egiteko, eta ez dakit Dustyk hau guztia erabat ulertzen duen. Mamuz inguraturik bizi naiz, eta zauria uste baino handiagoa da. Denbora ez da, antza, behar dudan sendagai bakarra.

Illinois, 1975

Margaretek berehala ezagutu du Walterren soslaia. Zooko sarreraren albo batean dago, naturaren babeserako elkarte batek antolatu dituen hitzaldi batzuen inguruko informazioa irakurtzen. Azaldu nahi duen interesa itxura baino ez da, ordea. Betaurrekorik gabe ez baitu gauza handirik ikusiko.

Chicagoko Lincoln Parken daude, jendez inguraturik. Familiak dira zootik irteten lehenak. Gurasoek, etxera itzuli, garaiz afaldu eta oheratuko dituzte emozioek gaindituriko haur petralduak berandu baino lehen. Bikote eta gainerako helduek, animalien marruak atzean utzi eta zerbait hartuko dute parkearen inguruko taberna edo pubetan. Cluben batera jazz entzutera joango denik ere izango da. Ez dago arrisku berezirik, eta hala ere, segurtasun neurriak zorrotz betetzen ari da Walter. Erne egon beharra dago gizon haren aurrean okerreko pausorik eman nahi ez bada.

Hatzen artean jostari darabilen zigarro-muturra lurre-ra bota, zapata takoidunen puntapean indarrez zapaldu eta iragarki-taulara gerturatu da Margaret. Elkarri begiratu ere egin gabe, iragarkien behaketan murgildurik egon dira denbora labur batez. Walter izan da tabako paketea berokitik atera, zigarro bat piztu eta aldendu den lehena. Pauso gutxi

batzuk eman orduko, bizkarretik datorren ahots batek gerarazi du.

—Barkatu, jauna, barkatu. —Margaret da, eskularru bat eskuan, oihuka ari zaiona.

—Bai? —Walterrek harridura aurpegia jarri du.

—Eskularrua. Zurea da, ezta? —Margaretek narruzko eskularru beltza Walterren aurpegi aurrean astindu du.

Walterrek eskua berokiaren patrikan sartu eta haren laguna atera du.

—Bai, halaxe da, zigarro paketea ateratzerakoan eroriko zitzaidan.

Margaretek eskularrua itzuli dio.

—Benetan eskertzen dizut, andrea. —Walterren irribareak Chicagoko neguko egunik beltzena ere alaituko luke.

—Tira, ez da ezer izan.

—Ez, ez, benetan. Eskularru hauek oso gogoko ditut. Atsekabe izugarria hartuko nukeen galdu izan banitu. Txokolata bero bat hartzera nindoan, gonbida zaitzaket?

—Tira, benetan, jauna, ez da beharrezkoa.

—Oso tematia naiz nahi dudanean. Ez dizut joaten utziko baiezkoa entzun arte. —Walterren irribarreak hantxe jarraitzen du, tinko, distiratsu.

—Beste aukerarik ez dut orduan.

—Primeran, Walter naiz.

—Ni, Margaret.

Walter martxan jarri orduko Margaret bere parera gerturatu da. Isilean eman dituzte pauso batzuk, lotsati.

Margaretek ingurura begiratu du lekuaren edertasunaz gozatuz. Naturak, Michigan lakuak eta Chicagoko etxe orratzen bistak konbinaketa paregabea osatzen dute.

—Sinatu du? —Walter izan da isiltasuna hautsi duen lehena.

—Bai. Orain ordubete deitu dit baieztatzeko.

—Uste baino gehiago kostatu zaio. —Walterren ahotsa ohi baino gogorragoa iruditu zaio Margareti.

—Ez da erabaki erraza.

—Mugimenduarekin konprometiturik bazaude, gainerako guztia bigarren mailakoa da.

—Sartu berria da.

—Behin baino gehiagotan eztabaidatu dugu hori. Sartu berria ala ez, konpromisoa berdina da; gure artean ez dago bereziketarik, denok betebehar eta erantzukizun berak ditugu.

—Badakizu ados nagoela, baina kide berri batzuei taldearen mekanika hartzea gehiago kostatzen zaie.

—Ongi da, utz dezagun. Noiz hasiko da lanean Energia Departamentuan?

—Astebete barru, apirilaren 15ean.

—Prest dagoela uste duzu?

—Bai. —Margaretek zeharka begiratu dio Walterri—. Zuk ez, ala?

—Ez da hori, baina, ez dakit... Badu zerbait...

—Zerbait, zer?

—Ez dakit nola azaldu, Margaret. Etxolan eman duen asteburuan ondo moldatu da. Eskatu genion guztia eta gehiago egin du. Taldekide izateko frogak gainditu ditu. Energia nuklearraren eta Gobernuak energia honen inguruan egindako frogen aurkakoa da, baita gai hau inguratzen duen sekretismo guztia argitzearen aldekoa ere... Baina...

—Baina...

—Ez da emakume erraza. Ideia propioak ditu eta ez dakit taldearen nahiek eta bereek talka egingo balute, zer erabaki hartuko lukeen.

Margaretek burla haizez begiratu dio Walterri.

—Emakume otzan eta esaneko baten bila zabilta?

—Tira, Margaret. Txorakeriarik, ez. Taldearen segurtasuna dut buruan, besterik ez. —Walterren ahotsean haserre nabaritu du Margaretek eta bere buruari tentuz ibili behar duela gogorazi dio, taldekide ala ez, Walter baita liderra—. Segurtasuna ez da jolas bat. Segurtasuna taldearen bizirautearen oinarria da, nahiz eta askok hala uste ez izan. Zergatik egin dugu itxura iragarki-taularen aurrean? Indarra hartzen ari gara eta Gobernuak ez da orain arte bezala betirako lo egongo. Zenbat eta ekintza gogorragoak egin, orduan eta kontrol handiago jasango dugu eta ordurako prest egon behar dugu.

—Ongi, da, Walter. Lasai, ulertzen dut.

Isilik jarraitu dute beste pixka batean. Txokolatea hartzera sartu aurretik baretu beharra dute.

—Elisa prest dago.

—Laster ikusiko dugu zer egiteko gai den.

—Ez dugu bera baino pertsona egokiagorik aurkituko Energia Departamentuan lan egiteko. Emakume jantzia da, bere curriculumak ikusi besterik ez dago: Joliot-Curietarrek inoiz egindako lana, Chicagoko Unibertsitatean argitaraturiko lanak... Punta-puntako zientzialaria da.

—Bai, baina punta-puntako zientzialaria izatea ez da nahiko. Batzuetan, helburua lortzeko, lan zikina ere egin behar izaten da.

Margaret isilik geratu da. Ez da bera izango ingeles argal haren alde egiteagatik lepoa arriskuan jarriko duena.

Walter boteretsua da eta ez du elkartean lortu duen posizioa hasiberri batengatik galdu nahi.

—Tira, utz ditzagun zalantzak alde batera eta har dezagun txokolate goxo bat bikote maiteminduen antzera.

Margaret leiho ondoko mahai batean eseri da. Pareparean du Sears Tower liluragarria, munduko eraikinik altuena! Izugarri gustatzen zaio, begiak itxi, eta arrano bilakaturik, hegoak zabaldu eta dorrearen goretetik abiatuz, Chicago gaintetik aske planeatzen duela imajinatzea. Hiriko kaleetan dabilenean ez bezalako askatasun sentrazioa ematen dio.

Txokolatearen zain dagoen bitartean, Margareti segurtasun neurriak bost axola zaizkiola pentsatu du Walterrek, bera bezala erne eta ingurua behatzen egon beharrean, ditxosozko Sears Tower-arekin leloturik dagoela argi ikusi baitu. Ez du dezepzio keinua ezkutatzeko ahaleginik egin.